

«Guk abangoardia nahi genuen, gazte pedante eta petral batzuk ginen»

Ramon Saizarbitoria
Idazlea



Ramon Saizarbitoria, Donostian, Urumea itsasoratzen den lekuan. :: F. I.

Orain dela 50 urte idatzi zuen lehenbiziko nobela. Orduan ez zuen harrera berorik izan. Oso garai desberdinak ziren

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944) orain dela 50 urte idatzi zuen bere lehenbiziko liburua, 'Egunero hasten delako' eleberria. Liburuko azken hitzen ondoan ageri da data: «Friburgon, 1968ko apirilaren 25a». Dena dela, geroxeago publikatu zen, 1969an, eta Lur argitaletxearen bidez. Saizarbitoria berak, Ibon Sarasolak, Arantxa Urretabizkaia eta beste zenbaitek sortutako argitaletxean, hain zuzen ere. Liburuko istorioa ezaguna da: Gisèle izeneko emakume gaztea haundun gelditu da eta abortatzea erabakitzen du. Hala, zenbait medikuren kontsultak

korritzen ditu. Beste plano batean, gizon berritsu baten bakarrikzeta ageri da. Bi plano independente dira.

– Suitzako Friburgon idatzi zenuen nobela, ezta?

– Bai, hango pisu batean. Ikasle-pisu batean bizi ginen euskaldun batzuk, eta hantxe. Rafa Egiguren zegoen gurekin...

– Rafa Egiguren poeta, gero Txinan ibilitakoa?

– Bai, hura. Eta Luis Gorrotxategi, hura ere hermaniarra... Eta, bisitan, bi iheslari etorri zitzaizkigun: Matxain –orain irakasle dabilena unibertsitatean– eta Txato Agirre. Abortoaren gaia nondik nora? Aita Mutrikukoa nuen eta nik asko bizi izan nuen heriotza Mutrikan. Ezberdina zen Mutrikan eta Donostian. Hura arrantza-le herria zen eta heriotzaren bat gertatzen zenean herri osoak lutoz bizi zuten. Behin, akordatzen naiz –ez dakit egia den– neska gazte batek bere buruaz beste egin zuela, eta haundun

zegoela. Uste dut hori izan zela bultzatu ninduen idaztera.

– Eta pentsatzen dut hasiera-hasieratik egin nahiko zenuela giro urbanoko nobela. Ordu arte sotana eta baserria ziren euskal letren munduaren erreferentzia nagusiak.

– Bai, horixe zen printzipalena; istorio urbanoa izan behar zuen. Guk nahi genuen euskara kalera ekartzea.

– Eta euskarari dotorezia eman, ezta?

– Hori da. Baserritarikeriari aurre egin nahi genion. Hori zen gu guztion helburu nagusia.

– Idatzi zenuen nobela eta Ibon Sarasolari bidali zenion.

– Koaderno bat zen, eskuz idatzia. Baina ez nion Iboni zuzenean bidali, postaz neska bati bidali nion, honek Iboni eman ziezaion. Ez nuen kopiarik gorde, nahiz garai hartan ez genuen konfiantza askorik postan; askotan galtzen ziren gauzak. Orain ez nuke egingo, ezta inondik ere. Uste dut ez niola garrantzi handiegirik

«Koaderno postaz bidali nuen. Ez nuen kopiarik gorde, nahiz postan gauza asko galtzen ziren»

«Nobela hau, gaztelaniaz izan balitz, ez zen inola ere publikatuko»

«Arestirentzat, gu burges txiki xamarrek ginen. Hark errealdismo sozialista gehiago ikusi nahiko zuen nobeletan»

eman egindakoari. Edozein modutan, literatura asko zegoen testu galduen inguruan.

– Nolako koaderno zen hura? Testu garbia zen?

– Ez dut uste zuzen-zuzenik idatziko nuenik. Pentsatzen dut pasarteak lehenengo folio solteetan idatziko nituela, eta gero haiek koadernora pasa. Ibon Sarasolari esker publikatu zen. Bera erabakigarria izan zen.

– Ibon 'autoritas' zen zuentzat?

– Bai, Ibonek beti eduki du finezia bat, usaimena –eta horrelakoetan txistea egin ohi dut, sudurra ere galanta dauka eta–. Intuitiboa ere bazen, eta batez ere gauza batengatik estimatzen nuen nik asko: bazekielako berreitzen gauza hortera eta hortera ez zena. Bazekien muga jartzen arinkariaren eta gauza txukunaren artean.

– Beraz, Ibon Sarasolari esker.

– Beste lagun bati ere utzi nion koaderno, eta ez zuen interesik agertu. Gero, nobela argitaratu zenean, ez



eta liburua irakurri gabe eman zuen baimena, noski. Batez ere 'gora Euskadi!'-ak eta horrelakoak axola ziztaizkien haiei. Pentsatzen zuten horretaz aparte euskaraz ezin zitekeela gauza oso arriskutsurik esan.

– **Frantzia toki erakargarria izango zuen orduan. Halako istorioa kontatu nahi zenuelarik, nobela ezin zenuen Euskal Herrian kokatu.**

– Hemen egiten ziren abortoak, baina sukaldeko mahai gaineko aborto klandestinoak ziren, emakumea askotan hil egiten zelarik, infekzioengatik. Frantzia erakargarria zen guretzat bai, baina mundu osoarentzat zen erakargarri. Paris, mundu osoaren kulturaren epizentroa zen. Amerikarrak ere Parisa etortzen ziren 1970era arte. Parisko hiriarren dominazio tiraniko bat ere gertatu zen. Kalte ere egin zigun Sartre eta Simone de Beauvoirren tiraniak. Literatura oso berezia jarri zen modan eta askotan gehiegikerian erori ziren eta erori ginen. Muturreko ezkeraren eraginez, itsu egon ginen zenbait fenomenoaren aurrean, adibidez Sobiet Batasunean gertatzen ari ziren gertaeren aurrean. Ondorioz, nire belaunaldiak bizkarra eman zion ingelesezko literaturari, eta liberalismoari. Nik Isaiah Berlin eta horrelako jendea beranduegi ezagutu nuen; hain itxita geunden Sartre eta enparauekin...

– **Begi-bistakoa da zinearen eragina badagoela zure lehenengo nobela honetan. Bi plano ditu nobelak, bata gizon berritsu baten barne-bakarriketa, bestea Gisèle protagonistista nagusiaren inguruko gertaerak kontatzen dituena, eta atentzioa ematen du bigarren plano honek zer-nolako erritmo azkarrean egiten duen aurrera.**

– Lotsa ematen dit esatea, baina nobela freskoa da, bai. Nobela horrek badu zerbait, beharbada galdu dudana urteekin (barreak). Astunago egin ote naizen... Eta freskotasuna, '100 metro'-rekin are gehiago. Nire lehenbiziko nobela honetan bada funtzionaltasun bat, gauzak esplikatu gabe adieraztea; interpretaziorik gabe. Gehiago da zerbait kontatzea modu arinean, tesitan sartu gabe.

– **Azala nolatan egin zuen Alberto Corazón famatuak?**

– Hor egon zen jende bat Pctik zetorrena, desengainatuta. Sinpatia handiz hasi ziren Euskal Herria ikusten. Euskara bera iraultzaile zela esaten genuen garai hura zen... Hemen ere bazen jendea Pctik atera eta Equipo Editorial sortu zuena, eta Visor poesia-bilduma... Alberto Corazón Madrilen bizi zen, Plaza Nagusian, hiriarren epizentroan. Familia onekoa zen eta gero Telefónicaren logoak eta zenbait bankurenak egin zituen. Orain margolaria ere bada. Anekdotikoki, esango dizut Durangoko Azokan pare bat urtetan edo, ez zigutela baimenik eman Lur argitaletxearen mahaia ipintzeko, eta Alberto Corazónek egin zigula urte baterako kartel bat oso ederra, «Lur, kultura herriarentzat» jartzen zuena. Kartel berde bat zen eta Durangoko hormetan itsasi genuen, eta udaltzainak atetik eta gu ihesi. Ba kontua da kartel hori ez dela existitzen, ez dago ale bakar bat ere. Zer pena!

– **Eta zer arrazoï edo zer aitzakia eman zizueten Durangon?**

– Ez naiz akordatzen eta ez diot kontu horri buelta asko eman nahi. Akordatzen naiz urte batean Xabier Gereñok utzi zigula bere stand-aren zati bat. Sektarismoa beti eduki dugu gure artean.

– **Gereño on-puska zen, eta hain txintxo... azkenean gutxietsi egin genuen bere ekarria.**

– Bai, kristaua zen. Pertsona ona, tolerantia. Askok maite zuen Aresti, adibidez, eta bazekien apreziatzen pertsonaren balioa, begiratu gabe akatsei edo desadostasunei. Orain gehienok ikasi ez duguna bazekien Gereñok egiten. Baina nik banuen harekin desadostasun bat. Gereñok nahi zuen euskarazko kultura herrikoia egin, gaztelaniaz egiten zenaren pare. Hark masa-kultura nahi zuen: berbena-kantak euskaratu, polizia-nobela irakurterrazak... Eta gu elitistago ginen, uste genuen euskarak abangoardia izan behar zuela; alegia, uste genuen abangoardiazko produktuak egin behar zirela, euskarari prestigioa emateko. Egia da Gereñorekiko mespretxu pixka bat egon zela; eta gu gazte pedante eta petral batzuk ginen.

– **Lehen edizioko hitzaurrean, Ibon Sarasolak dio «euskal unibertsitarioentzat» dela liburua. Nik ez dut uste orduan irakurle potentzial asko egongo zenik.**

– Bai, ez zegoen irakurlerik. Unibertsitatek ere ez zegoen. Oraingo gazteek nekez uler dezakete zer zen hura. Gaizki gaudela esaten dugunean, ez dugu atzera begiratzen, ikusteko egin dugun bidea. Hala ere,



Lehen edizioa.
Liburu-portada eta eskuizkribuaren azala eta lehenbiziko orrialdea.

garai hura oso erakargarria egiten zait, ez bakarrik gaztea nintzelako, baizik eta dena egiteko zegoelako, eta oso dibertigarria zelako lan egitea; eta gainera estimua jasotzen genuen. Euskaraz lan egiteak bazuen prestigioa, eta nahiz idazten zenuen liburuak gero irakurle gutxi eduki, ekarpen interesgarritzat hartzen zen. Eta orain iritsi gara egoera batera, non liburu bat argitaratzea problematikoa izan daitekeen, inflazioa baitago. Liburu-dendetan liburu gehiegi dago oraintxe.

– **Gabriel Aresti laguna zenuten. Ezer esan al zuen liburu honetaz?**
– Ez. Aresti oso bilbotarra zen, baina asko etortzen zen Donostiara eta gure taldean zegoen, nolabait. Nukleo hau existitzen baitzen bakarrik Euskal Herrian. Esango dute nahi dutena,

baina Donostiako Gipuzkoa Plaza inguruan zegoen euskal mundua. Euskaltzaindia ere Gipuzkoako Diputazioaren besean zegoen. Horregatik etortzen zen Aresti, baina harentzat gu burges txiki xamarak ginen. Nik hizkuntza kontuetan sekula ez dut interes gehiegi izan, eta Arestik bai. Eta beste gauza bat: Arestik kontzientzia sozial handia zuen, eta errealismo sozialista gehiago ikusi nahiko zuen nobeletan, nire nobelatxoetan ikusten zena baino. Nik 'nouveau roman' maite nuen, eta ez dut uste alde horretatik Arestiren oso gustukoa izango nintzenik.

– **Liburu hau bukatu eta, handik hilabete batzuetara Arantzazura azaldu zinen, Euskaltzaindiko euskara batua erabaki zuen batzar famatu hartara.**

– Gogoratzen naiz Anbrosio Zatarainekin joan nintzen taxian, berak ordainduta, noski. Oso gizon jatorra. Kontxako Pasealekuan bizi zen, ingeniaria zen, kristaua hau ere. Eta oso tolerantia bera ere. Akordatzen naiz Villasante, Mitxelena, Zatarain... tolerantiek izan zirela gurekin. Euskararen munduan zebiltzanek harrera ona egin ziguten gu bizardunoi. Nik hatxearen ikur horren pean jarri nuen neure burua, nahiz niretzat arazoa zen: ez nekien hatxeak non ipini behar ziren, baina Arestik hor militaritzen zuen, eta aurrera. Batzar hartako oroitzapen bat badauk: Lafitte zaharra, bere sotanarekin, nola esan zuen bestaldera begira ari baginen hatxearen alde, horregatik ez egiteko.

– **Indarra hemen, Hegoaldean zegoelako.**
– Hori da.

Liburuko akats teknikoa -idazlearentzat tortura- eta José de Artecheren errieta

Badirudi Diputazioko liburuzainak Santa Bernardetteren antza hartu ziola portadan ageri zen neskari

■ F. I.

DONOSTIA. Benetan merezi du irakurtzea Ramon Saizarbitoriak bere 'Egunero hasten delako' obraren 2007ko bosgarren edizio hari egin zion hitzaurrea. Besteak beste, idazleak kontatzen du urteetan iraun dion trauma: obraren bukaera aldera, Gisèleren aborto-ebakuntza deskribatzen delarik, halako batean medikuak forzeps bat eskatzen dio laguntzaileari. «Garaian, nik ez nekien fitsik abortatzeko teknikei buruz, ez haurdunaldiaren fisiologiari buruz, eta, ondorioz, ezta protagonistaren gestazio denborari zegokion enbrioaren neurriari buruz ere, eta pentsatzen dut filmen batean ikusitako irudiak hala iradokita, efektu dra-

matiko bat lortzeko edo -besterik ezean ere bai- azaltzen nuela bestalde hain izen bortitz eta zirrargarria duen tresna kirurgikoa. Baina, noski, agerikoa denez, erabat lekuz kanpo gertatzen da zentimetro bat baino gehiago izan beharko ez lukeen enbrioia askatzeko aipatzea, hain zuzen ere, umeak erditze kanaletik irteteko arazoak dituenean, handiegia delako sarritan, erabiltzen den tresna baita», dio orain dela hamaika urteko hitzaurre horretan.

Halaber, kontatzen du José de Artecherekin izandako iskanbila. Gizon hura 'El abrazo de los muertos' eguneroko famatua idatzitakoa zen eta Diputazioko Bibliotekan egiten zuen lan, Gipuzkoa Plazako jauregian. Behin, Saizarbitoria han zegoela, liburu baten fitxa bilatzen, liburuzainak, hatz erakuslearekin seinalatuz, zera galdetu zion: «Zu Saizarbitoria zera, ezta?» Idazleak baietz erantzun, eta orduan Artechek, bere ahots burrunbatsuz: «Barkamena eska-

tu behar diozu Euskal Herriari belauniko!». Gero, ez daki nola, Saizarbitoriak jakin zuen gizon haren haserrearen motiboa portada izan zela. «Lehendabiziko argitalpenaren azala orain mundu zabalean ezaguna den Alberto Corazón diseinatzailearen lana da, eta bertan neska baten aurpegia azaltzen da. Artechek Santa Bernardetteren antza hartu zion, nonbait, eta pentsatu bide zuen asmo txarrez aukeratu genuela abortatu egiten duen protagonista irudikatzeak».

Galdetu zion Corazóni, «eta ezetz esan zidan, hain zuzen ere, berarentzat familia bezalakoa zen Donostiako Castells-Artetxetarretako neska bat zela».

Pasadizo hori oso jakingarri eta argigarria da Ramon Saizarbitoriarren iritziz: «Uste dut egungo giroan nekez imajina daitekeen eszena honek balio duela nire garaiko hura ulertzen laguntzeko eta, batez ere, orduko urratzaile modernok zenbateraino ginen gizajoa erakusteko».

zuen aparteko harrerarik izan. Soilik Xabier Gereñoren aipamentxo bat.

– **Garai hartan zer-nolako tradizioa zeneukaten zuek? Batetik, autoren klasiko zaharrak; bestetik Txomin Agirre, Yon Etxaide, Loidi Bizkarondo...**

– Eta Txillardegi.
– **Bai, Txillardegik bazeukan ordu-rako gauza bat publikatuta, 'Leturiaren egunkari ezkutua', eta aurrekoen aldean idazle oso ezberdina zen.**
– Bai, existentzialista zen, urbanoa... Garai hartan harremana neukan berekin. Belgikan zegoen eta idatzit egiten genion elkari. Beste gauza bat, orduan puri-purian zegoena: zentsura. Nobela hau, gaztelaniaz izan balitz, ez zen inola ere publikatuko. Antonio Arrue euskaltzainari pasa nion, honen oniritzia jaso eta azkenean Ugartek baimena eman zuen, Arruez fidatuta. Ugarte hau zen Información y Turismo delegatua Donostian,